

FUNTSEZKO ELKARTEAK

Full Scanner-en negozio-ereduak modu eraginkorrean funtzionatu dezan, **funtsezko elkarte eta aliantza estrategikoen** sare bat diseinatu dugu. Gure egoitza **Gasteizen** egoteak kokapen pribilegiatua ematen digu hornitzaileekin eta bazkideekin harremanak estutzeko, hiru helburu nagusi hauek lortzeko:

1. Aliantza Estrategikoen Helburuak

- **Negozio-eredua optimizatzeko**→ Gure indarrak salmentan eta bezeroaren arretan jartzeko, kanpoko bazkideak erabiliko ditugu ekoizpen edo logistika prozesuetan, kostuak murriztuz eta eskalagarritasuna handituz.
- **Arriskuak murrizteko**→ Teknologia dentalaren merkatua oso aldakorra denez, **fabrikatzaileekin eta aseguru-etxeekin itunak** egingo ditugu ziurgabetasuna eta inbertsio-arriskuak partekatzeko.
- **Baliabideak eskuratzeko**→ **Fast-time** scanner-ak kalitatezko osagaiak eta **software** eguneratua behar ditu; horregatik, teknologia-hornitzaile espezializatuekin elkartuko gara baliabide horiek bermatzeko.

2. Gure Funtsezko Elkartekideak (Bazkideak)

Gure ekosistema honako bazkide hauek osatuko dute:

- **Hardware Fabrikatzaileak**→ **Fast-time** scanner-ak ekoizten dituzten enpresekin itun eksklusiboak, teknologia puntakoa eta ordezeko piezak beti eskuragarri izateko.
- **Software Garatzaileak**→ Scannerr-ak behar duen **software** dentala mantentzeko eta eguneratzeko bazkide teknologikoak, emaitzak zehatzak eta azkarrak izan daitezen.
- **Gasteizko eta Arabako Osasun Institutuzioak eta Unibertsitateak**→ Aliantzak formakuntza zentroekin gure scanner-a **prestakuntza-saioetan** erabil dezaten, horrela etorkizuneko dentistek gure produktua ezagutu dezaten.
- **Logistika Bazkideak (Vitoria-Gasteiz)** → Gasteiz nodo logistiko garrantzitsua denez, **tokiko garraio-enpresekin** egingo dugu lan banaketa-katea azkartzeko eta **Fast-time** scanner-ak kliniketan garaiz entregatzeko.
- **Finantza Erakundeak**→ **Bankuekin akordioak**, gure bezeroei (klinika dentalei) finantzaketa-baldintza onuragarriak eskaintzeko scanner-a erosteko orduan.